Familia bidezko transmisioa

Merke eta eraginkorrena: etxean erakutsi euskara

Euskara familia bidez transmititzea hizkuntzak bizirauteko biderik naturalena, eraginkorrena eta merkeena da. Hala dio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hari horri tiraka, azken urteotan hainbat ikerketa egin du HPSk familia bidezko transmisioaren nondik norakoak xeheago aztertu nahian. Orriotan aurkezten dizuegun lana 2007an egindako ikerketa sakonera hurbilketa da.

ONINTZA IRURETA

DANI BLANCO

HPSren ikerketak erakutsi du amaren hizkuntza-identitateak aitarenak baino pisu handiagoa duela hizkuntza transmititzeko prozesuan.

HPSk lehenengoz egin du halako ikerketa sakona, familia bidezko transmisioari buruz. Dena dela, gaiaren garrantzia kontuan hartuz, azken urteotan hainbat azterketa egin dira gurasoek seme-alabei euskara nola transmititu dioten ikusteko.

1991. urteaz geroztik bost urtez behin egin den Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoan, inkestatuei galdetu zaie gurasoengandik jaso duten lehen hizkuntzari buruz. Azken inkestan berriz, inkestatuek beren seme-alabei transmititu dioten hizkuntzari buruz galdetu zaie. Beraz, gutxi gorabehera azken ehun urteotan, eta bereziki azken hamar urteotan, Euskal Herrian euskara nola transmititu den jakiteko modua dago.

Kontuan izan behar da azken hogeita bost urteotan elebidunen ezaugarriak aldatu direla. Hasierako elebiduna euskara etxean jaso zuena eta gune euskaldunetan bizi zena zen; orain profil horretako elebiduna gero eta urriagoa da. Elebidun berriak euskara eskolan ikasi du eta hiri-gune erdaldunetan bizi da. Bestalde, profil berri horretako elebidun multzo handia

haurrak izateko garaian dago. Egoera hori probestuz, HPSk bi ikerketa eginak ditu. Bata 2005ean egin zuen Gasteizko Olabide ikastolako ikasle ohiak ardatz hartuta. Ikasle ohi horiei galdetu zitzaien ea euskara seme-alabei transmititu dioten ala ez. Emaitzak Donostiako Santo Tomas lizeoko ikasle ohiei egindako azterketarekin alderatu zituzten, hau da, Gasteizkoan baino gune euskaldunagoan hazitako ikasle ohiekin.

Beste ikerketa 1999an egin zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Bikoteen tipologia ezarri zuen. Geroago bikoteen ezaugarrien araberako zerrenda hobetu zuen, eta baita etxean jasotako hizkuntza zenbateraino gorde den eta etxeko erabilera aztertu ere.

Familia, eskola eta haurtzaindegia

Berebiziko garrantzia du gurasoek seme-alabei bizitzako lehen hiru urteetan erakusten dioten edo dizkioetan hizkuntzek, ama hizkuntza edo lehen hizkuntzak.

Hizkuntzak biziberritzeko familia ez dela nahikoa azpimarratuta, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak zera azaldu du: "Eskola funtsezkoa izaten ari da etxean euskara jaso ez duten gazteek ikas dezaten. Baina ahalegin horiek guztiak helburu argia dute: eskola bidez euskaldundu diren gazte horiek familia sortu eta seme-alabak dituztenean euskara transmititu diezaietela. Etxean jasotako hizkuntza hobeto menperatzen da, eta horren ondorioz, gehiago erabiltzen da. Aldi berean, etxea da, oraindik ere, umearen erabilera eremurik berezkoena". "Oraindik" dio Baztarrikak, haurrak gero eta lehenago eta gero eta ordu gehiagoz daudelako haurtzaindegian. Baztarrikaren ustez, horrek seguruenik, lehen hizkuntzaren kontzeptua berraztertzea ekarriko du lehenago edo beranduago. ■

Euskararen transmisioari buruzko ikerketa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an egin du ikerketa, 2001eko errolda kontuan hartuta. Bi gurasoekin (edo senide gehiagorekin) etxean bizi diren 2 eta 29 urte arteko seme-alabak dira aztertzeko hautatutakoak. Euskal Autonomia Erkidegoko 462.593 pertsona hartzen ditu aintzat talde horrek. Milioi erdi hori 2 eta 29 urte arteko herritarren %70 dira.

Gurasoen tipologia

D mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz eta biek dute gutxienez euskara lehen hizkuntza –lehen hizkuntza, bat baino gehiago izan daiteke–.

B mota indartua (B+): bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina bakarrak du lehen hizkuntza gutxienez euskara.

B mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina bien lehen hizkuntza gaztelania da.

A mota indartua (A+): guraso batek ondo egiten du euskaraz eta lehen hizkuntza gutxienez euskara du. Besteak ez du euskaraz ondo egiten, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

A mota: guraso batek ondo egiten du euskaraz eta gaztelania du lehen hizkuntza. Besteak ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

X mota: bi gurasoetatik batek ere ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera [EAE, 2001 (%)]



✓ Guraso biek euskaraz ondo dakitenean, euskara transmititzen dute nagusiki eta, neurri handi batean, esklusiboki: seme-alaben %88k euskaraz baino ez dute jaso gurasoengandik eta %7k euskara gaztelaniarekin batera. Gainerako %5ek gaztelaniaz besterik ez dute jaso.

✓ Euskaraz ondo bikotearen kide bakarrak dakienean, ehunekoak nabarmen aldatzen dira, eta bortizki egiten du behera etxean euskara bakarrik jasotzen dutenen ehunekoa (%35), euskara eta gaztelania jasotzen dituztenen (%30) eta gaztelania soilik jasotzen dutenen (%35) mesedetan.

✓ Azkenik, bietatik bakar batek ere euskaraz ez dakienean, seme-alaben ia %95ek gaztelania dute lehen hizkuntza.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa lehen hizkuntzaren eta hizkuntza gaitasunaren arabera

✓ Etxean jasotako hizkuntza mantentzeari dagokionez, euskara lehen hizkuntza izan dutenen %92,2k euren hizkuntza-gaitasunari eutsi diote edo hobetu egin dute.
Aldi berean, lehen hizkuntza gaztelania bakarrik izan dutenen artetik (2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben %72,6), ia %80k euskara ikasi du (%38,2 guztiz eta %39,3 partez) eta bostenak pasatxok erdaldun elebakarra izaten jarraitzen du.
Laburbilduz, beraz, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben ia %85ek euskaraz dakite: %52,9 elebidunak dira eta %30,4 elebidun hartzaileak.

✓ Hizkuntza galtzeko prozesuari dagokionez, lehen hizkuntza euskara izan dutenen %7,8k hizkuntza-gaitasuna galdu dute, baina gehienetan galera hori erabatekoa (%0,7) ez, baizik eta partziala (%7,1) izan da. Euskara galdu dutenak 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba guztien %2 baino ez dira.

Lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alabak



Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania duten seme-alabak



2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben hizkuntza-bilakaeraren indizea, guraso motaren arabera



✓ Guraso biek ondo hitz egiteaz gain lehen hizkuntza euskara badute (D), lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %98,6koa da (%93,9k bakarrik eta %4,7k gaztelaniarekin batera).

✓ Bikotekideetako batek lehen hizkuntza euskara badu (euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna) eta besteak, elebiduna izan arren, lehen hizkuntza erdara izan duenean (euskaldun berria) (B+), biek euskaraz ondo hitz egin arren, euskara lehen hizkuntza duten seme-alaben ehunekoa %92,4koa da.

✓ Bi gurasoak euskaldun berriak direnean (B), berriz, etxean euskara bakarrik jaso duten seme-alaben ehunekoa %32,2 da eta euskara eta gaztelania jaso dutenena %18,9. Halere, gogoan izan behar da euskaraz ongi hitz egiten duten seme-alaben ehunekoa %80tik gorakoa dela.

2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben banaketa etxeko erabileraren indizearen (Erabil) arabera

Lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza erabat loturik daude. Izan ere, seme-alabak etxean jaso duen hizkuntza eta etxean nagusiki erabiltzen duena bat datoz.

✓ Seme-alaba euskaldun zaharren %70 baino gehiago euskal hiztunak dira eta euskaldun berrien %90 baino gehiago erdal hiztunak.

✓ Jatorrizko elebidunen artean, gehienbat bi hizkuntzak erabiltzen badituzte ere, elkarrekikotasuna txikixeagoa da (%63,2).



2 eta 29 urte bitarteko seme-alaba elebidunek etxean erabiltzen duten hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera



Bikotearen hizkuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, euskaraz hitz egiten duten seme-alaben ehunekoa ere orduan eta handiagoa izango da. Aitzitik, nahiko da bikotekideetako batek euskaraz ez jardutea, seme-alabengan ere euskarak nagusitasuna gal dezan.

✓ Horrenbestez, D motako bikoteen artean guraso biek euskaraz hitz egiten dutenean, seme-alaben %85ek nagusiki euskaraz hitz egingo dute; aldiz, ehuneko hori erditik behera kokatzen da, bikotekideetako bat elebidun hartzailea denean.

✓ Bikote mistoetako seme-alaben artean euskararen erabileraren beherakadak eragin zuzena dauka euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiten duten seme-alaben ehunekoan, hirukoiztu egiten baita (%12,5etik %37,2ra). Eragin hori are nabarmenagoa da elebidun hartzaile diren seme-alaben ehunekoan, %1 ozta-ozta gainditzetik %20tik gorakoa izatera igarotzen baita.

✓ Guraso biak elebidun hartzaileak direnean seme-alaben %85 ere elebidun hartzaileak dira. Gainerakoetatik, %10 bi hizkuntzetan mintzo dira, eta %5ek baino gutxixeagok batez ere euskaraz hitz egiten dute.

Etxeko erabilera familiako elebidunen dentsitatearen arabera

Familiako elebidunen dentsitatea %80tik gorakoa denean soilik da euskara nagusi. Ehuneko hori jaisten den unetik aurrera, euskarak nagusitasuna galtzen du, eta ia ez da erabiltzen %60tik beherako elebidun dentsitatea duten familien artean.





Ikerketaren ondorio nagusiak

✓ Lehen hizkuntza biziarteko ezaugarria da; horrexegatik, bada, aldaketa erritmoa ere geldoa da.

✓ Lehen hizkuntza gutxienez euskara duten seme-alaben ehunekoak, orokorrean, gora egiten du adinak behera egin heinean.

✓ Kopuruei erreparatuta oraindik talde txikiena bada ere, euskara nahiz gaztelania jaiotzetik jasotzen dutenen taldea hazten ari da gehien.

✓ Guraso biak elebidunak direnean, euskararen transmisioa bermatuta dago: seme-alaben %95ek gutxi gorabehera euskara jasotzen dute jaiotzetik, eta horietako gehienek euskara besterik ez.

✓ Hizkuntza-gaitasun erlatiboa oso erabakigarria da hizkuntza transmititzeko prozesuan, hizkuntza-gaitasun bereko bikoteek oso modu desberdinean transmititzen baitute euskara, euren lehen hizkuntza euskara izan ala ez.

✓ Amaren hizkuntza-identitateak aitarenak baino pisu handiagoa du beti hizkuntza transmititzeko prozesuan.

✓ Euskaldun berri diren bikoteengan edo kideetako bat soilik elebidun dutenengan, transmisio-prozesua ez da bete-betean bermatuta egoten.

✓ Hizkuntza-bilakaeraren prozesua bizi-bizia da, hein handi batean hizkuntza-bilakaeran euskara gehitu delako. Kasurik okerrenean ere, azken emaitza euskararen aldekoa izaten da argi eta garbi, ia-ia 120.000 pertsona baitira guztira.

✓ Jaiotzetik euskara jaso zuten seme-alabek euren hizkuntzari eutsi egiten diote; jaiotzetik jaso ez zutenen ia %85ek, berriz, ondo edo hala moduz dakite.

✓ Euskara lehen hizkuntza izan dutenen %1ek baino gutxiagok galdu du hizkuntza erabat, eta %7,4k hizkuntza-gaitasuna galdu du neurri batean. Ehuneko horrek handi samarra badirudi ere, talde horretako hirutik bik 2-4 urte bitartean dute, eta, beraz, zehatzagoa izango litzateke fenomeno horri guztiz garatu gabeko hizkuntza-gaitasuna deitzea, bestela, haurrak erabat jasotzera heldu ez diren gaitasunaren galera partzialaz arituko baikinateke.

✓ Guraso bat gutxienez elebiduna denean, seme-alaben %70 ere hala dira.

✓ Euskaraz dakien guraso batek hizkuntza hori jaiotzetik jaso badu, lehen hizkuntza euskara soilik duten seme-alabak dira nagusi. Bikotearen kide elebiduna edo elebidunak euskaldun berria(k) bad(ir)a, nabarmen handitzen da euskara nahiz gaztelania biak lehen hizkuntza dituzten seme-alaben kopurua.

✓ Seme-alaben ama-hizkuntzaren eta etxean erabili ohi den hizkuntzaren arteko paralelismoa begi-bistakoa da.

✓ Euskaraz gero eta gutxiago hitz egiteko joerari buelta eman zaio, nahiz eta goranzko bide horretan hartu duen erritmoa euskaraz ikasteko erritmoarena baino askoz geldoagoa izan. Gazteen artean ere gehiagotan hitz egiten da euskaraz.

✓ Seme-alaben hizkuntza-erabilerak gurasoen erabileraren isla dira.

✓ Amak hizkuntza-arloan duen jarrerak aitarenak baino eragin handiagoa du seme-alaben hizkuntza-erabileran.

✓ Familiako elebidunen dentsitatea %80tik gorakoa denean soilik bermatzen da euskaraz bizi ahal izateko aukera.

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure! artean! euskaraz

BFA DFB

Patxi Baztarrika

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

«Euskaldun berriak gero eta gehiago ari dira euskara transmititzen»

Ikerketak dioenez, gurasoen hizkuntza-gaitasuna oso garrantzitsua da seme-alabei euskara transmititzeko orduan, eta gurasoek euskara ama-hizkuntza izatea erabakigarria.

Gaur egun, gurasoak euskaldunak direnean euskararen transmisioa ia ziurtatuta dago. Guraso horiek euskaldunak izateaz gain, euskara etxean jaso badute, seme-alaba ia guztiek euskara jasoko dute haiengandik. Gehienek euskara bakarrik eta gainontzekoek erdararekin batera. Azken urteotan, gainera, ikusten ari gara guraso euskaldun berriak, hau da, euskara etxetik kanpo ikasi dutenak gero eta gehiago ari direla euskara transmititzen, eta familia bidez transmititzen ez den kasuetan, eskola bidez ziurtatzen da, neurri handi batean, seme-alaba horiek euskara ikasiko dutela. Izan ere, euskaldun berrien seme-alaben %80tik gora elebidunak dira gaur egun.

J. U. / Argazki Press

Eta seme-alabei dagokienez, euskaldun zaharren %70ek familian euskara erabiltzen dute nagusiki eta, euskaldun berrien %90ek, aldiz, gaztelania. Seme-alaben ama-hizkuntza eta erabilera bete-betean daude orduan lotuta?

Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi dira: hizkuntza hitz egiteko erraztasuna eta hizkuntza horretako hiztunen harreman-sarea. Hau da, hizkuntza erabiliko dugu menperatzen badugu eta norekin hitz egin baldin badaukagu. Euskaldun zaharrek baldintza biak betetzen dituzte gehienetan. Etxean jaso dute euskara, beraz, umetatik menperatzen dute, eta, gainera, familia-giro euskaldunean bizi dira, beraz, aukera dute egunero erabiltzeko. Euskaldun berri asko eta asko, aldiz, kontrako egoeran bizi da. Erdara dute lehen hizkuntza eta eskolan edo euskaltegian ikasi dute euskara. Gainera, familia-giroa erdalduna dute, hortaz, neba-arreben artean ez bada, nekez aurkituko dute norekin hitz egin.

> Azken 15 urteotako ikerketetan ez dugu inoiz sexuaren araberako alde esanguratsurik jaso. Oraingoan, ordea, familia transmisioan sakondu dugunean, aldea agerikoa da

Amak hizkuntza arloan duen jarrerak aitarenak baino eragin handiagoa du seme-alaben hizkuntza-erabileran. Zergatik ote?

Azken 15 urteotan euskarari buruz egin ditugun ikerketetan, hainbat aldiz aztertu ditugu hizkuntza aldagaiak, eta ez dugu inoiz sexuaren araberako alde esanguratsurik jaso. Ez euskararen ezagutzan, ez erraztasunean, ezta eremu desberdinetako erabileran ere. Oraingoan, ordea, familia bidezko transmisioan sakondu dugunean, aldea agerikoa da. Aurrerantzean transmisioari buruz egingo ditugun azterketetan sakon ikertuko dugu gertakaria. Oraingoz esan dezakeguna da ume jaioberriaren ardura nagusia amak hartzen duela oraindik, eta horrek, noski, erabateko eragina duela hizkuntzaren transmisioan ere.

Familiako elebidunen dentsitatea %80tik gorakoa denean soilik bermatzen da euskaraz bizi ahal izateko aukera. Datu gordina da.

Gordina baino, logikoa da. Beste erabilera eremu batzuetan ez bezala, familian nahikoa da kide batek euskaraz ez jakitea, euskararen erabilerak nabarmen behera egiteko. Horrelakoetan, halere, euskararen eta erdararen, bien, erabilerak gora egiten du nabarmen. Seme-alabek, gainera, etxeko kide erdaldun bakar hori aita ala ama izaten baita gehienetan, ondo bereizten dute batarekin eta bestearekin erabili beharreko hizkuntza. ■